
II. ERANSKINA.

BESTE BIODIBERTSITATE-

ESTRATEGIA BATZUEN

ANALISIA

2016ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA.....	4
2.1. Alderatutako Europako dokumentuak	4
2.2. Konparazioko tokiko eta erkidegoetako dokumentuak	6
3. EMAITZAK.....	6
3.1. Nazioz gaindiko Estrategiak	7
3.1.1. Europar Batasuneko Estrategia	7
3.2. Estrategia nazionalak.....	7
3.2.1. Espainia.....	7
3.2.2. Austria.....	8
3.2.3. Danimarka.....	8
3.2.4. Belgika.....	9
3.2.5. Holanda.....	9
3.2.6. Finlandia	10
3.2.7. Suitza	11
3.2.8. Frantzia	11
3.2.9. Alemania	12
3.2.10. Moldaviako Errepublika	12
3.3. Eskualde-estrategiak	13
3.3.1. Andaluzia	13
3.3.2. Bizkaia	14
3.4. Toki-estrategiak	15
3.4.1. Vitoria-Gasteiz	15
3.4.2. Zaragoza.....	15
3.4.3. Santander	16
4. AZTERKETAREN EMAITZAK.....	17

Natura-ondarea oinarritzkoa da bizitza garatzeko, funtsezkoa, berebat, gizakiaren ongizatea mantentzeko, eta, era berean, aberastasuna zein enplegua sortzeko aukera ere bada. Ildo horri jarraikiz, biodibertsitatea eta geodibertsitatea babestu eta kontserbatu egin behar dira, horretarako behar diren neurriak ezarrita; izan ere, Lurrean gizakia bizitzeko oinarria baitira eta pertsonak, bi elementu horiei lotuta baikaude, bai kulturalki, bai emozionalki.

Estrategia testuinguruan jartzeko eta erreferentzia-esparru bat jartzearren, Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak¹ 6. artikuluan hau adierazten du: «*Alderdi bakoitzak biodibertsitatea zaintzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko estrategiak, planak edo programak prestatuko ditu*». Biodibertsitatearen plangintza gauzatzeko betebeharra ezartzen da, Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmenak ezarritako helburuak betetzeko asmoa islatzen duen dokumentu edo estrategia baten bidez, kasu bakoitzean.

Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmenaren eskaeraren ondoren, ekimen ugari jarri dira martxan alor guztietan eta, hala, Biodibertsitatea Kontserbatzeko hainbat Estrategia ezarri dira.

2030erako Euskal Autonomia Erkidegoaren Biodibertsitatearen Estrategiako hainbat atal garatzeko, biodibertsitatearen galeraren problematikari buruzko dokumentu desberdinak hartu dira aintzat. Azterketa eta konparazio honetan, biodibertsitatea planifikatzeari eta kudeatzeari buruzko hainbat esperientzia azalduko dira, ahal den heinean, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasura ekartzeko.

¹ www.cbd.int (azken ikustaldia: 2016-05-05).

2. METODOLOGIA

Biodibertsitatea kontserbatzeko hainbat Estrategiari buruz eskuragarri dagoen informazioa bildu ostean (nazioz gairikoa, nazionala, eskualdekoa eta tokikoa), Europa mailakoak laburbildu dira, gai komunak identifikatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatearen Estrategiara ekartzeko.

Guztira, 17 dokumentu estrategiko aztertu dira. Batetik, kontinentean erreferente izan daitezkeen Europa mailako estrategiak aztertu dira eta, bestetik, eskualdekoak eta tokikoak.

Estrategia desberdinak aztertu eta alderatu direnean berrikusi diren alderdirik garrantzitsuenak, egitura eta edukiez gain, proposatutako helburu estrategikoak, jarduketar-lerroak eta ekintzak izan dira. Era berean, estrategia bakoitzean hautatutako partaidetza-prozesuak eta jarraipen-adierazleak ere aztertu dira.

Konparazio honen helburua ez da biodibertsitateari buruz dagoen informazioa zehatz-mehatz aztertzea, baizik eta Estrategia hau egiteko erabakigarriak izan diren alderdi nabarmenenak aztertzea, batik bat.

2.1. Alderatutako Europako dokumentuak

Dibertsitate Biologikoaren alorrean, Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmena aplikatzeko tresna nagusiak estrategia eta ekintza-plan nazionalak dira. Hitzarmen honek dibertsitate biologikoaren alorrean Estrategia nazional bat (edo antzeko tresna bat) presta dezatela eskatzen die herrialdeei; hala, bermatu behar dute Estrategia plangintzan integratuko dela, baita dibertsitate biologikoan inpaktu bat (positiboa edo negatiboa) izan dezaketen jarduerak dituzten gainerako sektore guztien jardueretan ere.

Gaur arte, guztira, 185 alderdik (% 94k) beren Estrategia egin dute², eta horietatik, 2016ko apirilaren 28an, Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmenak emandako informazioaren arabera, Europa mailako Biodibertsitatearen Estrategien eta ekintza-planen edo antzeko tresnen garapen-egoera³ hau da:

Biodibertsitate Estrategia eta Ekintza Plan Nazionala berrikusi duten herrialdeak
1. Alemania (2007*, 2015**) (2007) Estrategiarako 2020 Naturaren Kontserbaziorako Ekintza Programa
2. Austria (1998, 2005, 2014)
3. Belgika (2007, 2013)
4. Bielorrusia (1997, 2010)
5. Bulgaria (2000, 2005)
6. Kroazia (1999, 2008)
7. Danimarka (1996*, 2004**, 2014)
8. Eslovakia (1998, 2002**, 2014) Ekintza-plan eguneratua bakarrik
9. Espainia (1999*, 2005*, 2011**)
10. Estonia (1999, 2012)
11. Finlandia (1997, 2006, 2012)
12. Frantzia (2004, 2011) 2004n hartutako Estrategia; 2006-2008 bitartean hartutako eta 2009an berrikusitako Ekintza Plan Sektorialak; 2011n berrikusitako Estrategia
13. Holanda (1995, 2001, 2008, 2013)
14. Hungaria (2008, 2015)
15. Irlanda (2002, 2011)
16. Letonia (2000, 2003**, 2014) Berrikusitako ekintza-plana
17. Norvegia (2001, 2004, 2006, 2015)
18. Polonia (2003, 2007, 2015)
19. Erresuma Batua (1994, 2006, 2011)
20. Moldaviako Errepublika (2000, 2015)
21. Errumania (1996, 2001)
22. Suedia (1995, 2006)
23. Suitza (2006, 2012)
24. Europar Batasuna (1998, 2006, 2011)
*Estrategia **Ekintza-plana

Biodibertsitate Estrategia eta Ekintza Plan Nazionala osatu duten beste herrialde batzuk
1. Albania (1999)
2. Bosnia-Herzegovina (2008)
3. Grezia (2014)
4. Italia (2010)
5. Liechtenstein (2014)
6. Lituania (1996)
7. Luxenburgo (2007)
8. Malta (2012)
9. Montenegro (2010)
10. Portugal (2001)
11. Txekiar Errepublika (2005)
12. Serbia (2011)
13. Eslovenia (2001) Estrategia bakarrik
14. Ukraina (1998) Estrategia bakarrik

Lehenengo Biodibertsitate Estrategia eta Ekintza Plan Nazionala garatzen ari diren herrialdeak
1. Zipre
2. Monako

Biodibertsitatearen Estrategia eta Ekintza Plan Nazionalaren egoerari buruzko informazio berririk ez duten herrialdeak
1. Andorra
2. San Marino

² www.cbd.int (azken ikustaldia: 2016-05-05).

³ 2016ko apirilaren 28an eguneratutako dokumentua, hemen eskura daiteke: <https://www.cbd.int/doc/nbsap/nbsap-status.doc> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

Aurreko Europako Estrategia horietatik, konparazio honetan hauek aztertu dira (nabarmenenak izateagatik):

Europa mailako estrategia aztertuak	Indarraldia
Europa: <i>Biodibertsitateari buruzko Europar Batasunaren Estrategia 2020ra arte: gure bizi-asegurua eta kapital naturala.</i>	2011-2020
Espainia: <i>Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Plan Estrategikoa, 2011-2017.</i>	2011-2017
Austria: <i>Biodiversity Strategy Austria 2020+, Conserving Diversity - Securing Quality Of Life And Prosperity For Us and Future Generations.</i>	2014-2020
Danimarka: <i>The Danish Nature Policy - Our Shared Nature 2014-2050.</i>	2014-2050
Belgika: <i>Biodiversity 2020, Update of Belgium's National Strategy.</i>	2013-2020
Holanda: <i>Natural Capital Agenda: conservation and sustainable use of biodiversity.</i>	2013-2020
Finlandia: <i>Strategy for the Conservation and Sustainable Use of Biodiversity in Finland for the years 2012-2020, 'Saving Nature for People'.</i>	2012-2020
Suitza: <i>Swiss Biodiversity Strategy.</i>	2012-2020
Frantzia: <i>Stratégie Nationale pour la Biodiversité 2011-2020.</i>	2011-2020
Alemania: <i>Nationale Strategie zur Biologischen Vielfalt.</i>	2007-2020
Moldaviako Errepublika: <i>Strategy on Biological Diversity of the Republic of Moldova for 2015-2020 and the Action Plan.</i>	2015-2020

2.2. Konparazioko tokiko eta erkidegoetako dokumentuak

Gainera, euskal strategiaren ikuspegia egokitzeko asmoz, estatuko esparruaren barnean, eskualdeko zein tokiko Estrategiak aztertu dira:

Eskualdeko eta tokiko estrategiak	Indarraldia
Andaluzia: <i>Biodibertsitatearen Kudeaketa Integraturako Andaluziako Estrategia.</i>	2011-2020
Bizkaia: <i>Bizkaiko biodibertsitatea babesteko, hobetzeko eta kudeatzeko estrategia.</i>	2015-2020
Vitoria-Gasteiz: <i>Vitoria-Gasteiz udalerriko biodibertsitatea kontserbatzeko Estrategia.</i>	2014-2020
Zaragoza: <i>Zaragozako biodibertsitatea kontserbatzeko Estrategia.</i>	2011-2020
Santander: <i>Santander udalerriko biodibertsitatea kontserbatzeko Estrategia.</i>	2008

3. EMAITZAK

3.1. Nazioz gairako Estrategiak

3.1.1. Europar Batasuneko Estrategia

«**Biodibertsitateari buruzko EBren Estrategia 2020ra arte**»⁴ izeneko Estrategia onartu zuen Europar Batasuneko Ingurumen Kontseiluak 2011ko ekainaren 21ean egindako bilera eta ekintzak gehiago eztabaidatzea adostu zuen, Estrategia era eraginkorrean eta koherentean aplikatzen dela bermatzeko helburuarekin.

Europako liderrek hartutako konpromisoekin bat egiten du estrategia honek, eta horietako bat 2020rako helburua nagusia da: «*2020rako Europar Batasunaren zerbitzu ekosistemikoen biodibertsitatearen galera eta degradazioa gelditzea, eta horiek ahal den heinean leheneratzea; hala, EBk, aldi berean, munduko biodibertsitatea galtzearen aurka egiten duen ekarpena areagotuko du*». Hartutako beste konpromisoetako bat, 2050erako ikuspegia da: «*2050ean, Europar Batasunaren biodibertsitatea eta eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak (EBren kapital naturala) behar bezala babestu, balioetsi eta berreskuratuko dira, biodibertsitateak berezko balioa duelako eta gizakiaren ongizateari zein oparotasun ekonomikoari funtsezko ekarpena egiten diolako; hala, biodibertsitatearen galerak ekar ditzakeen aldaketa katastrofikoak saihestuko baitira*».

Europako Estrategiak neurri-programa bat proposatzen du. Hala, 6 helburu nagusik eta 20 ekintzak osatzen duten programa hori eta, konpromiso honi dagokionez, Europako gainerako dokumentuak dokumentu honen inguruan dabilta.

3.2. Estrategia nazionalak

3.2.1. Espainia

«**2011-2017 aldirako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Plan Estrategikoa**»⁵, 2011ko irailaren 16ko 1274/2011 Errege Dekretuak onartua, funtsezko elementua da 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa babesteko.

Kasu honetan, beharrezkoak diren erreferentzia-esparru bat, epe luzerako ikuspegia eta printzipio edo baldintza orokor batzuk ezarri dira (Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmenetik, biodibertsitateari buruzko Europako politikatik eta natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legetik eratorriak), eta Plan Estrategikoa aplikatzeko eta garatzeko gidalerroak ezartzen dituzte. Dokumentu luze bat da eta bi atal handi bereizi daitezke, batez ere: diagnostikoari zein xedeei buruzkoa, eta helburuei zein ekintzei buruzkoa. Jarraipen-programa bat ere badago, adierazleetan oinarritua, eta horri esker dokumentu horren aplikazio-maila ebaluatu ahal izango da.

⁴ http://ec.europa.eu/environment/marine/pdf/1_EN_ACT.pdf (azken ikustaldia: 2016-05-05).

⁵ http://www.magrama.gob.es/es/biodiversidad/publicaciones/libro_plan_estrategico_pnb_tcm7-202703.pdf (azken ikustaldia: 2016-05-05).

Bestetik, 2030erako EAeren Biodibertsitatearen Estrategiari geodibertsitatearen alorrean eman nahi zaion orientazioari dagokionez, 2011-2017 aldirako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Plan Estrategikoak, atal berezi batean, Diagnostikoaren atalaren barnean, jarduten du EAerako Estrategian aintzat hartzen diren geodibertsitateari eta ondare geologikoari buruzko alderdiez. European, estatuko Plan Estrategikoa da Diagnostikoan geodibertsitatea aintzat hartzen duen dokumentu urrietako bat.

3.2.2. Austria

Austriako Estrategia («***Biodiversity Strategy Austria 2020+, Conserving Diversity-Securing Quality Of Life And Prosperity For Us And Future Generations***»)⁶ 2014an hartu zuen bere gain Austriak, eta Estrategia erantzukizun partekatuaren eta irtenbide integralen bidez ezartzea sustatzen du.

Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmeneko helburuekin bat egiten du, eta estrategia egiten hauek guztiek parte hartu dute: hainbat talde sozialek; hainbat ministeriotako (ingurumena, nekazaritza, ekonomia...) ordezkariak osatutako Biodibertsitatearen Batzordeko kideek; ikerketaren eta zientziaren alorreko ordezkariak, nekazaritza- eta basogintza-sektoreko agenteak eta natura kontserbatzen eta babesten jarduten duten GKEek. Batzorde horren ardura izan da Estrategiaren ezarpena koordinatzea.

Egitura Europako gainerako Estrategien oso antzekoa da. Horrela, biodibertsitate-kontserbatzearen alorreko testuingurua (bai globala bai tokikoa) deskribatzen den sarrera-atal bat dago, erreferentzia-esparrua zehaztuz. Estrategia ezar dadin, garatu beharreko neurriak oinarri izan behar dituzten oinarriko printzipioak daude, 2050erako ikuspegi bat, 2020rako helburu estrategiko bat eta, azkenik, Aichiko xedeekin bat egiten duten 12 helburu, 5 ekintza-eremutan banatuta (dibertsitate biologikoaren ezagutza eta aitorpena, biodibertsitatearen erabilera jasangarria, biodibertsitatearen gaineko presioak murriztea, biodibertsitatearen kontserbazioa eta garapena eta biodibertsitate globala ziurtatzea). Helburuek dagozkien neurriak dituzte, hau da, helburuak ebaluatzeko parametroak eta ezarpenaren arduradunak.

3.2.3. Danimarka

Danimarkako Estrategiak («***The Danish Nature Policy – Our Shared Nature 2014-2050***»)⁷ ikuspegi bezala hau ezartzen du: «2050erako herrialde berdeagoa izango da, natura anitzagoarekin eta, batez ere, nazioartean babestuta dauden gune naturalak, baso handiak, parke nazionalak eta desagertzeko arriskuan dauden espezieetarako habitat garrantzitsuenak (itsasoko habitatak barne) konektatuta egongo diren herrialde bat izango da.». Estrategia honek 2020rako Europar Batasunaren Biodibertsitatearen Xedeak jarraitzen ditu, eta Danimarkako mapa berde bat egitean datza. Hori izango baita oinarria naturaguneak garatzeko eta egungo biodibertsitatea zaintzeko, naturagune berrien kokapenari lehentasuna emanez. Mapa berde honek ingurunearen mapa bat (gune naturalak, korridore ekologikoak, hezeguneak, habitatak, etab.) eta biodibertsitateari

⁶ <https://www.cbd.int/doc/world/at/at-nbsap-v3-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

⁷ <http://naturstyrelsen.dk/media/137410/danish-nature-policy.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

buruzko beste bat (desagertzeko arriskuan dauden espezieak, urrakorrak, zerrenda gorriak, etab.) ditu. Herrialdeko biodibertsitateari eta naturaguneei buruzko informazio guztia duen mapa digital bat sortzea ekimen berritzailea da; hala, dauden naturaguneei eta naturagune potentzialei buruz bildutako informazioa garrantzitsua eskainiko du, eta horrez gain, Estrategiaren helburuak eta lerroak ezartzen lagunduko du.

Aipatutako mapa berde horren garapenean oinarritutako esparru estrategikoaz gain, bestelako ekimenak ezartzen dira, dagozkien ekintzekin eta espero diren efektuekin. Ekimenei jarraipena egiteko eta aplikatzeko data batzuk ere proposatzen dira, eta azkenik, Europar Batasuneko helburuekin eta Aichiko xedeekin zerikusia duten ekimenen zerrenda bat dago.

3.2.4. Belgika

2013ko azaroan, Belgikako Ingurumenerako Ministerio arteko Konferentziak Belgikako Biodibertsitatearen Estrategia eguneratzea adostu zuen («**Biodiversité 2020, Actualisation de la Stratégie Nationale de la Belgique**»)⁸. Hein handi batean aurreko Estrategian (2006-2016) oinarritutako Estrategia da, eta eguneratu zenean, Dibertsitate Biologikorako Plan Estrategikoarekin (2011-2020) eta 2020rako Biodibertsitateari buruzko Europar Batasunaren Estrategiarekin bat egiten duten xedapenak sartu ziren. Eskualdeko biodibertsitateari buruzko ekintza-planak berrikusteko jarduerak gidatzea eta hainbat politika sektorialen artean Estrategia sustatzea du helburu nagusia.

Estrategia honen egitura Europako beste Estrategia batzuek dutenarekin bat dator; sarrerako atalean herrialdeko egungo biodibertsitatearen egoerari heltzen zaio; beste atal bat Belgikako esparru politikoari buruzkoa da; hirugarren atalean Estrategiaren oinarrian dauden gida-printzipioak azaltzen dira eta azken atalean Estrategia garatzen da.

Era berean, ikuspegi bat, helburu nagusi bat, lehentasunezko 15 helburu estrategiko eta 85 helburu (Aichiko xedeekin eta Europar Batasunaren Biodibertsitatearen Estrategiako helburuekin erlazionatuta daude) eraginkor ezartzen ditu. Ekintza espezifikoak eta jarraipenerako adierazleak ondorengo etapa batean garatuko dira, ezarpen-prozesuan zehar.

3.2.5. Holanda

2013-2020 Holandako Estrategiaren («**Natural Capital Agenda: conservation and sustainable use of biodiversity**»)⁹ helburua nagusia hau da: «*erresilientziadun ekosistemak eta biodibertsitateari laguntzen dioten ura, elikagaiak eta ongizatea ziurtatzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak bermatzea, eta aldi berean pobrezia aurre egitea.*» Helburu honek bete-betean bat egiten du Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmeneko eta Biodibertsitatearen Europako Estrategiako biodibertsitateari buruzko helburu globalekin. Holandako Estrategiaren oinarria hazkunde berdea da (natura-ondarea eta ekonomia), ikuspegi ekologiko, ekonomiko eta sozial batetik.

⁸ <https://www.cbd.int/doc/world/be/be-nbsap-v2-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

⁹ <https://www.cbd.int/doc/world/nl/nl-nbsap-v4-p1-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

Egiturari dagokionez, aurreko Estrategiaren berrikuspen bat denez, ez da diagnostikorik egin, baizik eta 4 helburu nagusiak zehaztu dira (bakoitza deskribatu da), eta horietatik, guztira, 16 ekintza sortu dira. Proposatutako helburuak lortzeko sentsibilizazio-ekimenak (hezkuntza eta ezagutzaren hedapena) egingo direla ezarri da eta Estrategia hau gauzatzeko erakunde arduraduna ere ezarri da. Erakunde horrek Estrategia finantzatuko du. Bestetik, ekintzen aurrerapenaren berri emango da, egoerari buruzko txosten baten bidez, Estrategiaren indarraldiaren erdian (2016. urtea).

Estrategiak dokumentu bat du (2014); bertan, Holandako gobernuak *kapital naturala* kudeatzeari buruz duen ikuspegia deskribatzen da. Nabarmentzekoa da termino honen erabilera; izan ere, erlazionatuta dago esamolde honekin: *Ekosistemen eta Biodibertsitatearen Ekonomia (TEEB-The Economics of Ecosystems and Biodiversity*¹⁰).

3.2.6. Finlandia

2012ko abenduan, Finlandiako gobernuak Estrategia hau onartu zuen: «**Dibertsitate Biologikoaren Kontserbaziorako eta Erabilera Jasangarrirako Estrategia Nazionala (2012-2020): natura salbatzea pertsonentzat**»¹¹. Aurreko Estrategiaren (2006-2016) eguneraketa da eta nabarmentzekoa da laburra izatea, 26 orrialde baititu.

Estrategia berriaren ikuspegia hau da: «*Finlandiako biodibertsitatearen galera gelditzea 2020an eta biodibertsitatearen eta ingurumen-zerbitzuen egoera ona bermatzea 2050ean*».

Dokumentuaren lehenengo zatian, biodibertsitatearen alderdi nagusien diagnostiko bat egin da; horrela, alderdi horietako bakoitzean helburu bat ezarri da, baita helburu guztietan aplika daitezkeen zeharkako neurri batzuk ere. 5 helburu estrategiko ezarri dira eta horietatik 20 xede nazional espezifiko sortu dira. Horiek guztiak Biodibertsitatearen Plan Estrategikoarekin (2011-2020), Aichiko xedeekin eta Europar Batasuneko Biodibertsitatearen Estrategian ezarritako helburuekin bat eginez formulatu dira. Aipatzeko alderdia da, Estrategia Finlandiako komunitate indigenek biodibertsitatearekin lotuta dituzten ezagutza eta praktika tradizionalak errespetatuta aplikatuko dela.

Estrategia hau ekintza-plan batez osatua dago eta bertan zehaztu dira neurriak, ekintzak gauzatzeko dituzten arduradunak eta neurri horien aldi baterako plangintza. Bertan, Estrategiaren kudeaketa-eredua zehaztu da eta gobernuo hainbat sailek egin dute, gizarte zibilaren eta hainbat sektore ekonomikoren lankidetzarekin. Estrategiaren bitarteko berrikuspen bat egitea ezarri da, 2015ean, Estrategia aplikatu den denboran lortutako aurrerapenak ebaluatzeko.

¹⁰ http://ec.europa.eu/environment/nature/biodiversity/economics/pdf/teeb_report.pdf (azken ikustaldia: 2016-05-05).

¹¹ <https://www.cbd.int/doc/world/fi/fi-nbsap-v3-p1-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

3.2.7. Suitza

Suitza Biodibertsitatearen Estrategiak («**Swiss Biodiversity Strategy**»)¹², 2012an onartua. Estrategia hau egiterako orduan, aintzat hartu dira Aichiko xedeetan eta Europar Batasunaren Biodibertsitatearen Estrategian ezarritakoa.

Gainerako Estrategiak bezala, bere egituran sarrera-atal bat dago eta bertan erreferentzia-esparrua, aurrekariak eta herrialdeak biodibertsitatearen alorrean duen politika azaltzen dira. Bestetik, Suitzako biodibertsitatearen egoera deskribatzen da, baita era globalagoan ere; horrez gain, biodibertsitatearen diagnostiko zehatz bat eta herrialdean aurrez gauzatutako kontserbazio-esperientziak ditu.

Halaber, Estrategia honek 2020. urtean lortu behar diren 10 helburu deskribatzen ditu. Horien artean hauek daude: sektore guztiek baliabide naturalak era jasangarrian erabiltzea, gune babestuez eta gune babestuen sareez osatutako azpiegitura ekologiko bat ezartzea, biodibertsitatearekin zerikusia duten jarduerak garatzea eta dibertsitate biologikoa Suitzarako onura-neurritzat hartzea. Azkenik, Estrategia ezartzeko behar diren baldintza orokorrak deskribatzen dira atal batean, Estrategia ebaluatzeko metodologia deskribatzen duen atal bat izateaz gain.

3.2.8. Frantzia

Frantziako Estrategiak («**Stratégie Nationale pour la Biodiversité 2011-2020**»)¹³, 2011n onartua, laburra izateagatik atentzioa ematen du. Argitaratzen den bigarren Estrategia da (aurrekoaren indarraldia 2004 eta 2010 bitartekoa izan zen). Sarrerako atalean erreferentzia-esparrua ezartzen da. Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmenarekin eta Aichiko xedeekin bat egiten du esparru horrek eta, halaber, koherentea da Biodibertsitate Estrategia nazionalen edukiarekin eta egungo ekintza-planekin. Estrategiaren ikuspegiaren eta helburuaren oinarritzko alderdiak hauek dira: informazioa eskaintzea, kontzientziaztea, hauteskunde-ordezkariek mobilizatzea eta partaidetza nahiz ekimenak sustatzea. Bereziki azpimarratzen da Estrategia hau garatzeko partaidetzak duen garrantzia.

Estrategiaren egiturari dagokionez, 6 helburu estrategiko, 20 xede eta xede horietako bakoitzak Dibertsitate Biologikoaren hitzarmenean onartutako Aichiko xedearen zerranda du.

Azkenik, Estrategia honen ezaugarri originaletako bat da, herrialdeko maila desberdinetako erakundeek Estrategiako partaidetza formaliza dezaten, izena emateko eta beren borondatez konpromisoa hartzeko mekanismo bat ezartzen duela; horrela, batera lan egiten dute Estrategia sustatzen eta hedatzen.

¹² <https://www.cbd.int/doc/world/ch/ch-nbsap-v2-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

¹³ http://www.developpement-durable.gouv.fr/IMG/pdf/1_bis_-_French_National_Biodiversity_Strategy_-_May_2011.pdf (azken ikustaldia: 2016-05-05).

3.2.9. Alemania

Alemaniako Estrategia («**Nationale Strategie zur Biologischen Vielfalt**»)¹⁴, 2007an onartua, Ingurumen Ministerioak sustatu zuen eta komunikazio- eta partaidetza-prozesu garrantzitsu bat izan zuen. Batetik, ingurumeneko hainbat sailerako agentek parte hartu zuten barne-eztabaida bat bideratu zen. Era berean, prozesuaren hasiera-hasieratik kanpoko ikuskapen bat egiten zela bermatu zen, eta hainbat sektoretako adituk (zientzia, ingurumena, kontserbazioa, lurraren erabilera, politika eta generoa) parte hartu zuten. Ingurumen- eta kontserbazio-elkartetako 26 aditu zientifiko eta 38 ordekarik, baita natura-ondarearen erabilerarekin erlazionatutako 58 elkartek ere partaidetza-prozesuan parte hartu zuten.

Egitura eta edukiei dagokienez, Alemaniako Biodibertsitate Estrategia Nazionalak, hasieran, herrialdeak biodibertsitatearen kontserbazioan duen eginkizuna eta egungo egoera deskribatzen ditu, bai tokiko mailan bai maila globalean. Dokumentu estrategiko gisa, ikuspegi bat, kalitate-helburuak eta jarduketa-lerroak ezartzen ditu. Gainera, jarduketa-lerro horiekin batera, biodibertsitatea hobeto kontserbatzeko 430 neurri zehatz daude. Azkenik, estrategia ezartzeari buruzko atal bat dago, eta bertan strategiaren ezarpenari jarraipena egiteko adierazleak daude.

Estrategia honen uneko aplikazioa hobetzeko helburuarekin, 2016ko martxoaren 9an «Nature Conservation Action Programme 2020»¹⁵ argitaratu da. Estrategian ipinitako neurri asko ez ezartzeagatik biodibertsitatearen egungo joera negatiboa aldatzea du helburu dokumentu horrek. Hala, Estrategiako helburuei lehentasuna eman nahi die aipatu dokumentuak (Europar Batasuneko helburuak praktikan jarrita) eta, halaber, 2020rako lehentasunezko 10 ekintza gune eta urgentziazko 40 neurri ezartzen ditu.

3.2.10. Moldaviako Errepublika

Moldaviako Errepublika Europar Batasuneko kide ez den arren, azterketa honetan bertako Estrategia hautatu dugu berriena delako (2015ean argitaratu zen) eta Europako herrialde bat delako.

Moldaviako Errepublikako Dibertsitate Biologikoaren Estrategia Nazionala eta bere Ekintza Plana («**Strategy on Biological Diversity of the Republic of Moldova for 2015-2020 and the Action Plan**»)¹⁶ 2015eko maiatzean onartu ziren; halere, Moldaviak bere lehenengo Estrategia 2001ean argitaratu zuen.

2011-2020 Dibertsitate Biologikorako Plan Estrategikoarekin eta Aichiko xedeekin eta Europar Batasuneko Estrategiarekin bat, Moldaviako dokumentuak 2020rako ikuspegi bat eta 5 helburu espezifiko integratzen ditu. Estrategia honen helburu orokorra hau da: «*biodibertsitatearen osagaien kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea, oinarria indartuta, herrialdeak garapen jasangarria izan dezan.*» Ildo horretan, ikuspegiak islatzen du Moldaviako Errepublikak Europa mendebaldeko estandarrak lortu nahi dituela

¹⁴ <https://www.cbd.int/doc/world/de/de-nbsap-01-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

¹⁵ <https://www.cbd.int/doc/world/de/de-nbsap-v2-en.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

¹⁶ <https://www.cbd.int/doc/world/md/md-nbsap-v2-en.doc> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

EBn sartzeko helburua erdiesteko, eta horregatik, Estrategian aurreikusitako lehentasunezko garapen-gidalerro guztiek politika nazionalak Europako alorrera egokitzeko helburua dute.

Moldaviako Estrategian helburu espezifiko bakoitza lortzeko hartu beharreko neurrien irismena zehazten da; hala, helburu horiei lehentasun-ordena bat esleitzen zaie eta kostu bat esleitzen zaie, baita jarraipen-adierazlea, finantzazio-iturriak eta helburuak aplikatzeko ardura izango duen erakundea ere. Ingurumen Ministerioaren ardura izango da Zaintza Talde bat izendatzea, eta talde horrek Estrategia aplikatzen egin diren aurrerapenei buruzko urteko txosten bat egingo du.

Era berean, dokumentu honetako beste alderdi interesgarri bat da, egin den azterketa sozioekonomiko zehatza, Estrategiaren kostuen inpaktua eta biodibertsitateak hazkunde sozioekonomikoari egiten dion ekarpena ebaluatzeko helburuarekin.

3.3. Eskualde-estrategiak

3.3.1. Andaluzia

2010ean «**Biodibertsitatearen Kudeaketa Integraturako Andaluziako Estrategia**»¹⁷ onartzeko prozesua hasi zen. Hala, Estrategia honen helburu nagusia hau da: «*Andaluziako biodibertsitatea kontserbatzea eta kudeaketa hobetzea, ekosistemen funtzionamendu egokia lortzeko eta mantentzeko.*» Egokiak diren izapide guztiak amaitu ondoren, baita partaidetza-prozesuarena ere, azken dokumentua gobernu-kontseiluak 2011ko irailean onartu zuen. Natura-ondarearen kudeaketan datozen urteetan jarraitu beharreko gidalerroak jasotzen dituen Estrategia bat da, florako eta fauna espezieen galera gelditzeko eta ekosistemek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

2020ra arte izango indarrean; dena den, epe ertainera/luzera (2050) bete beharreko ekintzak eta gidalerroak proposatzen dira. Bi data horiek Biodibertsitatearen Europako Estrategian planteatutako denbora-epeetara egokitzen dira.

Beren egiturak bost bloke nagusiren baitan egituratzen dira: 1) Andaluziako Estrategia testuinguruan jartzen duten oinarriko printzipioak eta kontzeptualak; 2) Andaluziako biodibertsitatearen kontserbazio-egoerari eta biodibertsitatean eragiten duten prozesuei eta faktoreei buruzko diagnostikoa (diagnostiko honen ondorioetatik gai nagusiak aterako dira eta era espezifikoan heldu zaie Estrategiako helburu eta xedeak betetzeko); 3) Adierazten diren helburu nagusiak lortzeko behar diren antolaera eraginkorrak, ekintzak eta gidalerroak dituzten lerro estrategikoak; 4) ezarpen-proposamena, zeinak prozesu estrategikoa garatzeko aukera eman behar duen inplikaturak dauden hainbat administrazio eta sektore sozialen arteko integrazioarako, koordinazioarako eta lankidetzarako funtsezko premisarekin bat eta 5) planteatutako helburuak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko programa bat.

¹⁷http://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/portal_web/web/temas_ambientales/biodiversidad/static_files/estrategia_biodiversidad/eaigb.pdf (azken ikustaldia: 2016-05-05).

Biodibertsitatearen Kudeaketa Integraturako Andaluziako Estrategian partaidetza eta inplikazio soziala hasiera-hasieratik ezinbesteko elementutzat jo dira. Horregatik, azpimarratzekoa da dokumentu honetan partaidetza-prozesu zabal bateko ekarpenak eta ondorioak sartu direla. Prozesu horretan, aipatzeko modukoa da hauek guztiak egin zirela: probintzia mailako tailerrak, tailer horiek martxan jartzeko eskualdeko jardunaldi bat, kontsultatzeko eta parte hartzeko mekanismoak jarri ziren Andaluziako Juntako Ingurumen Saileko webgunearen bidez eta hainbat administrazio, elkarte eta erakunderi entzundaldia eta informazioa eskatu zitzaion.

Andaluziako Estrategian nabarmentzekoa duen luzera (330 orrialde inguru ditu) eta dokumentuaren zati handi bat diagnostikoari buruzkoa da, hau da, ezarritako xedekak lortzeko behar diren antolaera eraginkorrak, ekintzak eta gidalerroak barnean hartzen dituzten alderdiak identifikatzeari buruzkoa da.

3.3.2. Bizkaia

«**Bizkaiko Biodibertsitatea babesteko, hobetzeko eta kudeatzeko estrategiak**»¹⁸ datozen 5 (2015-2020) urteetan garatu beharreko ekintzak proposatzen ditu. Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmeneko helburuetan eta Europar Batasunaren Estrategian oinarritzen da.

Dokumentu horren helburua da nazioarteko, estatuko eta erkidegoko helburuei eta Bizkaia 21 Programan¹⁹ jasotako konpromisoari erantzuna ematea, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen dituen biodibertsitatea babesteko, hobetzeko eta kudeatzeko helburuak lortzeko behar diren mekanismoak zehaztuz.

Estrategia bi atal nagusitan banatzen da. Sarreran helburu nagusia eta jomuga ezartzen dira, baita erreferentzia-esparrua ere. Horrez gain, helburu operatiboei buruzko atal bat ere badago, Estrategia hauek dituzten beharrezko printzipio-giden edo baldintzen antzekoa (adib.: erabilera jasangarria, ardura partekatua, kudeaketa proaktiboa, ikuspegi ekosistemikoa, koordinazioa eta lankidetzeta, partaidetza soziala eta partaidetza-kudeaketa, informaziorako sarbidea eta ezagutza-gardentasuna, prebentzio- eta arreta-printzipioa, etab.) Bi atal nagusiak hauek dira: Diagnostikoa (dokumentuaren erdia baino gehiago hartzen du) eta helburuak eta lerro estrategikoak; azken honetan, adierazitako helburuak lortzeko ekintza eta neurri zehatzak planteatzen dira.

Adierazitako ekintza bakoitza martxan jartzeko ardura duenarekin, inplikaturik dauden erakundeekin eta maiztasun/iraupen/berrikuspen batekin lotzen da. Azkenik, Estrategiaren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko sistema bat dago.

¹⁸ http://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPT09/Temas/Pdf/Eus_Estrategia%20Biodiversidad%20%28Para%20publicar%29.pdf?idioma=EU (azken ikustaldia: 2016-05-05).

¹⁹ <http://www.bizkaia21.eus/> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

3.4. Toki-estrategiak

3.4.1. Vitoria-Gasteiz

EAEko udalerrri-mailako dokumentu bakarra hau da: «**Vitoria-Gasteiz udalerriko biodibertsitatea kontserbatzeko Estrategia**»²⁰, 2014ko azaroan onartua. Estrategia hau luze samarra da (302 orrialde ditu, baita eranskinak ere) eta diagnostiko zehatz bat du.

Egiturari dagokionez, Europako beste Estrategien oso antzekoa da. Diagnostikoari buruzko atal bat du, eta bertan zehatz-mehatz deskribatzen da biodibertsitatearen atal bakoitza. Bestetik, arlo bakoitzean proposatzen diren helburuak, jarduketa-lerroak eta ekintzak zehazten dira, eta horien guztien azken helburua biodibertsitatearen galera gelditzea da. Guztira, 123 ekintza proposatzen dira. Diagnostiko honen aurretik, udalerrriaren testuingurua adierazten da, eta aintzat hartzen den lurraldea kokatzen da.

Vitoria-Gasteizko Estrategian nabarmentzekoa da adierazleen sistema bat hartzen duela bere gain, biodibertsitatearen galeraren aurka egiten duten hirien ahalegina ebaluatzeko bereziki diseinatua (tokiko biodibertsitatearen Singapurko adierazlea). Ekimen hau 2008ko Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmeneko nazioarteko gailurretik dator. Bertan ikusi zen beharrezkoa zela tresna bat garatzea, hiriek tokiko biodibertsitatea kontserbatzeko egiten duten ahalegina monitorizatu eta ebaluatu ditzaten. Ekimen honek indarra hartu zuen 2010etik aurrera, Nagoyako gailurretik aurrera; izan ere, gailur horretan ekintza-plan bat jarri zen martxan, bereziki, tokiko agintariek Dibertsitate Biologikoaren Hitzarmeneko edukiak ezartzera bideratua.

3.4.2. Zaragoza

Zaragozako Udalak «**Zaragozako biodibertsitatea kontserbatzeko Estrategia**»²¹ bat du onartua (2011ko apirila) eta kudeaketan integratua. Estrategia honetan, biodibertsitatea kontserbatzeko gidalerro internazionalak eta nazionalak integratzen ditu.

Estrategiak 3 jarduketa-lerro planteatzen ditu helburu hauek lortzeko: a) *dibertsitate biologikoa eta paisaia-dibertsitatea sendotzea*, b) *biodibertsitatea erabat integratzea udalerriko politikan eta kudeaketan*, c) *gaur egungo edo etorkizuneko mehatxuak gutxitzea edo deuseztatzea*, d) *kontserbazioaren eta biodibertsitate horren erabilera jasangarriaren arteko oreka sustatzea* eta e) *Zaragozako gizarteak biodibertsitatearen kontserbazioan eta erabilera jasangarrian erabat parte hartzen duela eta inplikatzeko dela bermatzea*.

Estrategia honetan nabarmendu daiteke zifretan oinarritako diagnostiko bat gauzatzen duela: azalaren datuak edo espezieen kopuruak eskaintzen ditu gehienbat, deskribapen-analisiak txertatuta, Estrategiaren eraginkortasun-maila aurrerago ebaluatu ahal izateko helburuarekin. Alderdi hori gainerako Estrategietatik bereizten da, diagnostiko-eredu deskriptiboagoa baitute. 5 helburu orokorrak ezartzen dira eta 3 ekintza-ardatz

²⁰ <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/00/33/50033.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

²¹ https://www.zaragoza.es/contenidos/medioambiente/biodiversidad_def.pdf (azken ikustaldia: 2016-05-05).

proposatzen dira helburu horiek lortzeko. Era berean, ekintza-ardatz horiek 5 xedetan, 16 jarduketa-lerrotan eta 43 ekintzatan banatzen dira.

Azkenik, Estrategiaren jarraipena egiteko eta aurrerapena ebaluatzeko atal bat dago. Atal honetan biodibertsitatearen hainbat adierazle daude eta, horrez gain, Estrategiaren partaidetza-prozesua deskribatzen da atal batean, baita indarraldia eta berrikuspenerako aldia zehaztu ere beste batean.

3.4.3. Santander

«*Santanderko udalerriko biodibertsitatea kontserbatzeko Estrategia*»²², 2008an onartua, ez dago diagnostikoari buruzko atalik; halere, Estrategian bertan adierazten da Santanderko Tokiko Agenda 21ean aurretiazko diagnostikoa dagoela. Estrategia hau laburra da (13 orrialde) eta 11 helburu eta 77 ekintza ditu, baita dokumentuari buruzko sarrera labur bat ere. Helburuak gai-arlotan banatzen dira: 1) *udal-kudeaketa*, 2) *biodibertsitaterako intereseko guneak*, 3) *hirigintza-hedapena*, 4) *habitat naturalak eta erdinaturalak*, 5) *hiri-ingurunea*, 6) *basaespezieak*, 7) *espezie exotikoak*, 8) *partaidetza*, 9) *hezkuntza eta sentsibilizazioa*, 10) *Estrategiaren garapena eta indarraldia* eta 11) *Estrategiaren jarraipena*.

Dokumentu ireki bat da, eta berrikusi egingo da egindako jarduketan eta sortzen diren kontserbazio-beharren arabera.

²² <http://portal.ayto-santander.es/portal/pls/portal/docs/1739396.PDF> (azken ikustaldia: 2016-05-05).

4. AZTERKETAREN EMAITZAK

- Dokumentu gehienek duten egitura orokorra hau da:
 - Sarrera eta aurrekariak
 - Hainbat arlotako erreferentzia-esparrua
 - Helburu nagusia eta ikuspegia
 - Diagnostikoa
 - Helburu orokorrak eta estrategikoak
 - Jarduketa-lerroak
 - Ekintzak
 - Indarraldia edo berrikuspena
 - Jarraipen-adierazleak
 - Parte-hartze prozesua
 - Aurrekontua eta finantzaketa
 - Agente arduradunak
 - Kronograma

- Diagnostikoaren atalean Estrategia gehienetan izaten diren biodibertsitate-alorrek, aldaketaren bat izan daitekeen arren, jarraian dauden hauek dira:

BIODIBERTSITATEAREN ALORRAK	
• Habitatak	• Espezieak
• Lurralde-antolamendua biodibertsitatea kudeatzeko tresnak	• Geodibertsitatea eta ondare geologikoa (ez da Estrategia guztietan lantzen)
• Konektibitatea	• Azpiegitura berdea
• Naturagune babestuak eta bestelako babes-mekanismoak	• Baliabide genetikoetarako sarbidea eta horien kontserbazioa
• Itsasoko eta kostaldeko ingurunea	• Ur kontinentalak
• Ekosistemen zerbitzuak	• Ekonomia berdea
• Lurraldearen zaintza	• Lurzoruaren erabilera jasangarriak
• Legegintza-esparrua eta tokiko esparru normatiboa	• Espezie exotiko inbaditzaileak
• Erosioa eta desertifikazioa	• Klima-aldaketa
• Hiri-ingurunea/urbanizazioa/artifizializazioa	• Beste inpaktu batzuk biodibertsitatean/Mehatxu-faktoreak

- Aipatzekoa da kontsultatutako hainbat Estrategiatan, esaterako, Europakoan, Belgikakoan, Finlandiakoan, Holandakoan edo Bizkaikoan, atal berezi bat dagoela behar diren zeharkako neurriak edo baldintzak adierazteko, hau da, kontuan izan beharreko gida-printzipio nabarmenenak dira biodibertsitatearen alorrean aurreikusitako helburuak lortzeko, baita Estrategia ezartzeko eta interpretatzeko ere. Jarraian, horietako batzuk agertzen dira:

BEHARREZKOAK DIREN ZEHARKAKO NEURRIAK, GIDA-PRINTZIOAK EDO BALDINTZAK

- Baliabideak mobilizatzea, biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak babesteko finantzazioa.
- Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak.
- Ezagutza, kontzientziaketa eta hedapena, ikerketa eta informazio-trukea.
- Partaidetza publikoa eta informaziorako sarbide publikoa.
- Gobernantza ona, kudeaketa proaktiboa
- Integrazio sektoriala.
- Subsidiarotasun-printzipioa.
- Prebentzio-eta ardura-printzipioa.
- Ikuspegi ekosistemikoa.

- Partaidetza-prozesua ezinbesteko fasea da Estrategia desberdinetan; izan ere, kezkek biltzen dira eta beste era bateko faktoreak detektatzen dira, agian, kontuan izango ez zirenak diagnostikoa egiterako orduan.
- Estrategien helburuei eta jarduketa-lerroei buruzko azterketaren ondorioa da, guztien helburua dela helburu estrategiko eta eraginkor errealistak txertatzea; horrela, Estrategia horietako Diagnostikoetan antzemandako arazoei erantzuteko, baita Estrategia bakoitzeko partaidetza-ekintzetan agenteek detektatutako beharrei ere.
- Estrategia batzuek malgutasunaren kontzeptua txertatzen dute kudeaketan, eduki teknikoari hertsiki lotua dagoen elementua baita. Horrela, plangintza estrategikoak egokitzeko gaitasuna izatea bermatuko da, Estrategien indarraldiaren barnean, biodibertsitatearen egoeran eta kontserbazio-egoeran izan daitezkeen aldaketak kontuan izate aldera.